EUZKEL-ATALA

ARRASATE

ELORTZA' IÑAKI'REN ERIOTZA

Izparringian irakurtian biotzak konkortuta utzi doskuz, batez ere aiñ era txarrian gertatziakin bere azkena. Erri onetan guztiz ezaguna eta maite genduan, ¿Nola ez? emen euskaltzaliak jairen bát gertatzen gendun guztian Iñaki' eme ngenduan, bere abots eder politakin geure biotzak pil pil jarri arte euskel abesti gozuakin. Euskaltzaliak naiz Arrasaten ta nai beste edozein lekutan jairen bat gertatzen zutela Iñaki jai artara eruateko etzeguan "diplomaziakin" jokatu bearrik itz erdi naiku zan. Berak aurretik erragarten ezbazuan an izango zala. Bere obiratze eta eleizkizunetan argi ikusi da alde guztietan zeiñ maite zuten Iñaki gaixua! Legazpi erriak gutxi gutxitan ikusiko duan azken agurra izanda ta irakurle otoi egin bere gogo alde.

Atsekabian laguntzen dotzat bere emazte atsege aita ama, anai arreba, eta gañetiko sendi danari ta batez ere ezkontz anai "Altzeta" zintzuari.

UDALA-MENDI.

AZPEITI'TIK

ANDRE MIREN'EN JAIA

Eguraldi ederrarekin jaio zan Txokoroko Amak, azkoitiarrak asko maite ditu, jatorrak izan noski ala ezta, Lengusue?

ELIZGINTZAK

Arratsaldekoak. Errosario santu ta Agur Erregiñarekin bukatua kizan ziran 10'etan meza aundia Erretore jaunaren itzaldiarekin.

Erruki Etxean.—Goizeko 6,30'etan meza kantatuba Jaun-artze aundiarekin eta Manipiurekin azken dubaz.

ELIZMENAK

Jun zan astelenian. Txadon nagusian Iñaki Mirenaren arimaren alde izan ziran. Notin asko bertara gertatu zan. G. B.

BAT BATETAKO ERIOTZA

Juan zan asteazkenean Dorotea Andre agurgarria il zan. Ostegunean obiratuba izan zan. Andre on bat izan zan. G. B.

Irakorle, Aita Gure bat bere arimaren alde.

JUANAK

Elisabete, Malalen, Miren ta Miren' lau anderetxu polit-politenak. Anderetxubak Bere oñeko Amari gauz on asko eskatu.

Donostira Begiristain' Joseba jauna bere sendi maite maitagarriarekin bertara Madrazo' Manu bere emazte agurgarri ta alaba Bingene politarekin. Erritar maiteak Donostin zeraten artean Jaunak gauz on asko deizutela...

Bertan agurtu degu Angulo' Koldobika gudari sargentu ospatsuba. Sargentu jauna emen zeran artean gauz on asko zere kutunarekin.

JUAN ZAIGU

Bañan ¿zein? Azpeitiko zar da gazteak esko zor dioten bat. Bañan ¿zein? Anai Julen Anai Maristen zuzendari edo diretoria. Bai, jaunek, asteazken illunabarrean Erromaruntz bidean irten zan, ta esan didatenez Txilera dijuba. Agur, Anai Julen, agur. Jaunak ordaindu zaitzala Azpeiti'n egin dezun on danagatik. Gaizki esanak ta egiñak barkatu, Anai Julen, ta agur.

AZOKA

Jende askorekin izan zan. Ollazko biko asko izan zan. Azkoiti'n korridie izan noski. Gaur ollaskube jatie gogo d'ezuten mutillek zizkube ondo astin du, bestela kra krauu eginda aldegin bearrian izango zerate.

ZAZPI MILLE TA BOST EUN

Azpeitiko Bizte Alaian Atanok artu zituala egi al da? Ala bada zorionak berari, bañan Atano, nun da igual dadea. Nik egunian, lau ordu ari, arian lanian ta lau erriekekon erdia saria, ta zuk ordu ta beste jolastuta, 21 ta piku laurleko egunian, bejondeikela, Atano, Azpeiti bezelako 20 baituk. Ziller ibaia irea, opa diak!

EZKONTZAK

Azpeiti'ko gazteoia astien, bada Erretore jaunak ezkon dei gutxi ojutzen du Gaztedia zer da gertatzen dana? Jan eran ta soiñak garesti, edo ta mutil zar eta neska zarren kopradiari on irit zita? ¡Ai! gizajo ta gajuak!

Etxeari eusteko abe txarra mutil zarra ta neska zarra? Askoren iritzian ¡Utikan! Azpeitiko gazteria Jainkoaren Legeak agintzen duban bezela ezkontzera berotu zaitezte.

Andra-gairik ez dagola nik bai dakit nun dan ona, ta polit bat. Nork dun jakin? Urren esango da. Agur.

URREKO ZOROA.

BAKIO

Aspaldijon idatzi barik egonda idazkortza moztuta egon arren, emen nator ni be Orixe jaunak lekurik emon gura badaust erri polit onetan bere zaindarijaren aintzaz egin diran jai jakingarriyak idazten EUZKADI'ren Euzkel-atalian argitalduteko ustiaz.

Ikusgarrizko jaupa egiñ da gaur erri onetako txadon nagosijan. Erriko seme diran lau Josulaun batu dira batak mezia esan bik lagundu eta augarrenak txonitza geure euzkera eztitsu ederrian egiñ.

Olaskoaga Koldobika Aba igez Deun Iñaki egunian bere lenengo mezia esaeban eta Uriarte Pantzeska, Agirre Pilipa eta Imatz Jon'ek aurtengo Deun orren egunian. Eta erri onetako txaunburu agurgarriak lendik oldoztuta euki dau gaurko jayau ta laurok berton batu eta aztu ez eiteko eguna erriko eta errijan udia igaroten dagozan guztiari be igaroteko ustia, eta lortu daula bere ustia esan leike.

Goizian lenen mezatan erriko semiok esan dabezan mezatan gitxi uste dot geldituko zanik gure Jauna artu barik emakume ume eta gizonezkotan be. Eta jaupa nagosiya ¡a ixanda ba ikustekue, Olaskoaga Abak mezia esan, Uriarte eta Imatz'ek lagundu eta Agirre Aba'k sermoia euskera garbi eta errezian. Ama Neskutsaren goralpenak ondo erakutsi Jauna'gandik artu ebazan eskarrak lenengo agertu dauskuz gero Ama Neskutsak eskar arei zelan erantzun d'autsoa, eta askenez guri erakutsi Ama on orren bizitzak geuretzako dauko zan erakuskayak argi azaldu dauskuz. Eta gustiya euskera erraz eta garbiyan.

Zorionak zeuri Aba Agirre; doistarrez ikasi arren euskeraz astu ez dozulako, eta aiñ ondo ta sutsu itz egin dozulako. Zeure erritar askok pozaren pozez negar egin dau, neu enaz bertokua baña iñoz tamalik izan bot edo gure izan bot nazan errikua barik beste batekua izatia gaur ixanda, zuk agindozun lez zuben otoyatan nik bere zati bat eukitiagaitik.

Neure ustez gaurko egunian Ama Neskutsari donokira lagundo eutsoen gotzontxuak be Bakiora begiratuta irri barreka egongo diran, eta Ama Neskutsa bere poz pozik erritxu onetako lau sendiko semiak ondi deunian ikustiaz, pozik zuben eskeintzak eta otoitzak bere seme guztia aldabenari eruango eutsozan eta Beragandik arturiko etzarrak zubekana eta erri guztira bialdu.

Zorionezko agurrik sutsuena zuberi Josulaun lauroi zubek edo zubekaitik errijari datorkion goralpenagaitik Jaunak emongo dautsue biar dozuezan eskarrak, Jesus'en lagundiyan Iñaki andiyaren bidietatik igaroteko ludi onetako aldiya. Baita zorionak be zuben guraso ta seniqiai batez be neure sendiko egiten diren Kasen eta Koldobike Josulaun biren gurasuak, eta zorionak batez be erri onetako txaunburu agurgarri maitiarie, gaur ager ager egonda beronen poza bere erri maitian gaurko jai ederra atonduten ibilli eta aiñ ederto urten dabelako.

Eta azkenez neu zuben erritarra ez ixan arren zuben otoyatan leku apur bat neutzako be eskatzen dautsuet.

Jaupa ostian gure euskal erriyari dagokiyon lez aurresku eder bat dantzatu dabe elexa aurrian.

Gaur arratsaldian ikusi doguz arietzan Durangoko dantzari txikijak azkar gero euren dantza garbi ta politak guri erakusten. Esan leike gaurko eguna Bakio'n euskal erriyari dagokiyon lez igaro dogula ezpalitz gabeko erromeriyagaitik.

Urrenguan laburrago gaurkua artzen badozu.

URKIDI.

BERMEO

JAIAK OSPATZEKO GOGUA

Andia da erri onetan dagoan gogua jaiak ospatzeko; elexkizuntzako bere bai baña lizunkerietako geyago. Ointsu "Kizkitza" jaun'en idazkaia askok irakurri arren adipen guztiegaz, adipenok arin trukatu dira ba ondiño ez da asikera baño, eta ikusko bazenduke "Orixe" emen dabillen mazamorria eguzkien sartu eratik eta ezin esan bere leitekezen orduek arte, negar, harre, eta nazkatu egingo zeñekez eta nik bakit nortzuk dauken errua.

ETORRIAK

Aldi onetan emen daukagu Errotaetxe jauna kresel bustialdiak artzen etorrita, bai ta bere arañegun etorri da "Tiburoi" ospetsua jaiak igaroteko asmuagaz, oraingu etan bere. ¿Ez ete dau irabildu edo azalduko onek berrien batzuk guk bildurrez ezin agerdu doguzan gauzak? Gurako genduke ba emen dagoan artian zeozertxu esango balei Euzkel-atalian lagun asko gagoz beronen zañian da.

Arrantzuan aipatza, eta bakoitzan egipenak.

Aurtengo atuntzuan (kosteria) gaur arte ederra daukagu ezin alakatu geñekez ondiño, baña uste dot irabazirik andienak artun doguzala atuntxuenak. Dagoan larrantzakaz beintzet esa nlei, ze; atun orrek daruan abiadura iparren barrura andia da.

Atzo atun lekutjk berandutu gendun amazazpi ordu, ori gero giltz guztiak igiritxe ama bost killo "prexiñuan", gure lez beste geyenok bere, ba begiratu atun orren musturra gura dabenak atrapau zertara abiatuta juan bear daun. Ingiru onetarako bearrekuena da egazkin bateta berton bere ziñaltz edo "testamentua" egin da.

Naspillatuta ibiltzen gera itxasuan lagundiko ezaupide edo (kontra señekaz). Aixe apur bat dagonian goratuten dabe bela latiña aurrian, atzian eurak eta geuk ikurrin "bandera "biñe daukagu lez, baraustuta ibilten gera; ontzian zalantza baratu gura badozu be Silberio eta lagundikoak egazkiñen eguak imiñisubez; erki au lenengoz geuria da, ta, ostantzien geuk bere oiko isara zuriekaz tximiniak birildukuz eta orduan ikusko dogu orain artekoak gitxi izan badira emendik aurrerantzeko nastuak bere norañoko luzera euki leian. Enaz gogoratzen geyago eta agurtzen da zeure otsein ziurra.

LAGUN-BATZUK.

DONOSTIA

EUSKEL-EGUNA

Andoain, Aita Larramendiren jayo erriya da, aurtengo Euskel-eguna egiteko, aukeratu dan erriya.

Datorren illean, egin nai dan Euskel-egun au, len egindako guziak motx uzteko añakoa izango dala ta, jakiña ontarako ere dirua biar.

Diru au biltzeko eskatuaz, jai aben batzorde antolatzalea etorri zaigu, ta izanik Euskel-eguna abek, euskotarrak biotzez maite dituben jaiak, ¡eutsi gogoz arpidea! ta euskelzale onak bagera, gure laguntza eskeñiaz batera, zabaldu dezagun onen alde sakela, beste lelokeri askontzako, makiña bal adiz zabaltzen degu ta.

¡Eup! guziairi; arpidea Eusko-Etxean iriki da, gertu guziak bertara.

ESTROPADAK

Donosti zar txoko maite ontan estropada jardunak asi dira.

Astelenian "Soterotxo" buru dutela, arrantzale ta legortarak nastuta, donostiarren sayoak asi dira.

"ALTZETA"-RI

Elortza Iñaki (G. B.) lagun ta euskelzale jator aren uste gabeko eriotz negargarria dala ta, artu ezazue, nere biotzeko agur samiñ leiala.

Emen oso ezaguna zalako, tamalez berri txar ori jakin da. Jaunak Donokiratu dezala, beti on egiteko gertu zegon lagun zintzo aren gogoa.

KIRIKIÑO SARIA

Lendik, 1.369 lauerleko. Saratxo, 1. Orain arte, 1.370 lauerleko.

¿Amar milla lauerlekora iritxi ote gera?

ATARRENE.

ERANDIO GOIKOA

Erriko zaindariya lez, eleizean aldetik andiro ospatu da erri onetan Andra Marian Jasokundea; bederatzi urrena, aurreguneko Agur Maria ta Jaunartze ederrakaz. Udalan aldetik, ikastolatako umien sariyak, iru edo lau saritxu aurreskulari ta dantzariyari, eresbatza arratsaldean, eta kitu.

✤ ✤ ✤

Sekulako pozen dago aurten geure lugin gaixoa urtaro ona dagola ta. Oñengo euriyak naiko dan bestean asetu dau lurra, bedar-aziyak erein eta arto indibabak ugarituteko; gariyak ederto emon ei d'au, igali ta ortuariyak bere ugari ta itxaropen ederra artoagaz bere. Igazkoa bardintzeko bearko dabe zeozer.

✤ ✤ ✤

Tamal andiya artu dogu, geure erritar eta adiskidea izan dogun Elordui Goiri Mikel'an eriotziagaz. Durango'tik Zaldibar'era yoyala, ango urak artzeko usteagaz, zori gaiztoko ez-bear batek galdu eragin dautso biziya. Egun gitxi barru 80 urte eukezan arren, oiturea eukan ibiltaldi luzeak egiteko, eta alanjuan zan Durango'tik oñaz, bere zaletasunari atsegiña emonaz. Kistar ona beti izan zanalez ezaugarriya al'dean eroyan, otoitz idazti edo librutxua oiturea eukazan otoitzak egiteko. Jaun errukitsuak Bere ondora eruango izango al dau. Otoi daigun bere alde, eta lagundu atsekabean bere seme alaba, anai eta beste sendiko enparabai. G. B.

✤ ✤ ✤

Ondo pozik artu izan da Asua ta ingeruan. Dermit Josu txirrindulari ospatsuan garaitza, lenengo sariya irabazirik, aldakuntza andiagaz beste lagunen gandik. Zorion agurrak dopautsaguz.

✤ ✤ ✤

Beristain Imanol'eri biyotz agurra egiteko asmua artu dabenak, erabagi d'abe, illa onen 25'gan egiteko; bere izenian jaupa bat agindurik, zein izango dan amar da erdietan, al daben guztiyan bera entzten juanaz, eta ordu batetan bazkariya Jauna alan nai dabela Imanol buru dala, ta ondoren emongo yako arpidez egindako opratxu bat. Ainbat dira izenak emon dabezanak, baña ondo izango da ta alan agindu dautie esateko, illaren 23'gko nai dabenak emon daizela izenak, bai Elordui' Koldobika'ri bekoak eta Agirre' Anastasi'ri goikoak; bazkariya izango da eleizaldean Agirre'n etxean.

AMEZ.

ERANDIO

MARKELIÑ'ERI

Agur Markeliñ irakurri nebazan beorrek geure EUZKADI izparringira bialduko abestitxuak oso politak ziran eta diñozu bertan gure udal etxeko idazlari jatorra zan Bereistain Imanol'eri egin bear jakola biyotz agur bat.

Ondo deretxat beorretatik urten d'aben asmu itzugarrizkoari. Eztot uste iñoz egingo zanik iñun orrek baño geyago orreri zor yakonik dalako bere zer egiñetan buru argikoa ta zaletasun andikoa beti geure oiturak gajtik lan asko egiñekoa.

¿Bereistain jauna ezututen dabenik geratuko ete da erri onetan biyotz agurrera etorri barik? Ez dot uste iñor geratuko danik zarrik ez gazterik, ez goitik ez betik.

Iya ba errian diran gizon jakintzuenak or izango dira ta ikusten joan bear da egun orretan batuko dira ta.

Poztuten naz ba Markeliñ beorren buru argi orretatik asmu orrek urteteagaz eta nire laguntasunik biar badeu ezetarako agindu nirekin. Markeliñ eta Amez zuri bardin diñotsut.

EUSKO LANGILLEARI

Asu'ko euzotegian dagon eusko-langillearen Batzokiko artezkariak oso fin dabiltza. Ba diñue ze eldu dirala iye larogei ingirure iru aste barru eta diñue ondiño ainbat lantoki deukiela ezertxu bere esan barik eta uste deukiela laster bazkidetuko dirala, bai nik bere alan uste dot egingo dirala baye...? zeri itxi doten d'agoz ba? Ai! orrek Komite paritariok zer egiten daben ikusi arten egongo dira bazkidetuteko, ze uste izengo dabe orrek ekarriko dabela iñok iñoz ekarri ez dabena erriko etxekoak esaten daben moduan (la repartiión de los intereses) ez uste izan orrelakorik ekarriko dabenik eta len bailen bazkidetu aikartu egin biarduta d'anok gero iñor bero beratu barik seguretzako langille ontzat alkartasuna da geuze bear bearrekoa zer edozer ateraten badegu geur onerako.

Iya ba izete nbada gure Batzokia beste toki askotakoa baño aundiago

JAYOTZA

Erri onetan eta illonen iruan jayo yako geure lagun dan Agirre Benardiñeri, ipiñirik euskerazko izen polita zein dan Jenar oso ondo aurkitzen dira bere emaztea ta mutikotxua. Zorionak ba Agirre eta ia izaten diran zeu lango euskelzaleak; bost semetatik bostak euskerazko izenakaz ba. Bost semean izinak onexek dira: zarrenak Sabin; bigarrenak, Iñaki; eta irugarrenak, Benardin ta laugarrena, Erraimunda. Onexek dira bere bost semian izenak badakit oraingokoan euki dozuna neskatotxu beten egarria, baye ze regingo da ba Goiko Jaunak emoiten dabenaz geratu biar ¿ezta, lagun? Ba ez azpertu, urrengoan izango da ta.

Baita Enekurin bere yayodako Soldebilla'ren emazteari neskatatxu eder bat ezeutzian ipiñi euskerazko izena neskatotxuen umak ezeban gure.

Zorionak ba neure lagun diran Linatza Norbertari ta Soldebillari ta Asua Todorari.

TXORI.

"KIRIKIÑO" - SARIRAKO

	Laurleko
Lendanik	7.082,75
J. R. de Olano	5
Guztitara	7.087,75

GALDAKAO

TXADONKIZUNAK

Andra Miren erri onetako zaindariaren egunean txadonkizun ederrak egin ziran gure txadonan, Amarretan izan zan jaupa nagosia, Udala Eresbatzagaz bertara eldurik. Jaupan ederto abestu eban emengo txadon-abeslari-taldeak Perosi'ren "Prima Pontificalis". Txonitz ederra egin eban euskera garbian Markiña'ko Karmeldar Lekaidetxeko Aita Ijinio agurgarriak.

Jaupa ostean Eresbatza'ko egin eban eres-joaldi bat erriko zelaiko eres-tokian.

NASKALDIA

Lengo egunean atsegin aundiagaz bostekoa estutu geuntsoen Willy Shutter jaunari ta bere emazte bikain gure beljikar adiskide onai. Willy Shutter jauna Beljika'ko Anberes uri aundiko izparringi bateko idazlaria da.

Eskar ugariak emoten dautsoguez Willy Shutter jaunari ta bere emazteari, eurak Euskal-Erriari ta geuri egin dauskuen ikertaldia gaitik.

GAIXORIK

Aspalditxuan gaixorik aurkitzen da Egia' Jone, neskatilla lirain-liraiña. Gerorago ta obetotxuago doiala entzun dogu ta orrek asko poztuten gaitu. Guztiz osatuta arin ikustea biotzez opa dautsogu.

LUGINTZA

Baserriak ikuskizun ederra dauko. Arto, indababa, lusagar eta enparau barazkiak eder-ederrak dagoz. Igaliak bete-beterik; lengo eguetako euriak ederto etorri dira baserriarentzat.

Jaungoikoa'ri eskarrak emon geunzkioz.

EGURASTUAZ...

Lengo egun baten, egurastuaz emengo bide batetik noiala, bide-baztarrean iru emakume aurkitu nituan, bat besartean umetxu bat ebala, bestea kaltzerdia egiten eta irugarrena bere burua orraztuten, zaldi-buztan arro bat baño zabalago uleak zituzala... Ta emakumeon ondotik ni igaro nintzanean alkar-izketa izugarria erabilli eben irurak. ¡Zer zan ango itz egin bearra! Batak baño besteak aurrerago ta geiago esan gurarik. Euran senar edo gizonetzaz itz egiten eben. Batek esaten eban bere gizona baño gizon obarik ez dagola ludi guztian be, ogi-zati bat langua dala, auzoatakuak gaiztotzat ba'dauke be... berak dakiala iñok baño obeto bere gizona zelako ona dan.

Bigarrenak esaten eban... bere gizona be ba onik iñon ba'da benetako ona dala, arkuua bat baño be obea dala, gixajo bat dala, noz edo noz ba larritxua izaten dala ta eukiten dituala irritu-alditxuren batzuk, baña ori ezdala izaten ba gaiztotasunagaitik, zintzoa ta beargiña izateagaitik eta lan asko, egiten dauan baño be geiago egin gura izaten daualako baño...

Irugarrena be ba, bere lagunak onan izketan ikusi azkero ezi nzan ixilik egon, eta esaten eban... gero... ez uste izateko bere gizona be gaiztua dala... "jenioa" bai, txarra daukola, orixe daukola ba apur bat txartxua; "jenioa", baña osterantzean... ¡bere gizona baño gizon obarik be ezdagoala... arnasea artuta bizi diranen artean!

Onantxe ba, emakumeok gogor egiten eben euran gizonen al'dez. Irurak ibilli ziran esaten euden baño askoz geiago esan gurarik, bakotxak berea esa narte itxaroteko be asti barik, noizik noizera irurak batera itz egiten eben. ¡Zer zan euran durundia ,euran zaratea! Ezdakit Ginebra'n be ainbestekorik izango ba'da...

Emakume onein gizonak pozik egon leitikez. ¡Mutillak, edozeiñek e zditu onango aldezkariak!

Iru andera onein ondotik igarokeran "Arratsalde on" eurai esan neuntsoen, baña ezeustean erantzun. ¡Jakiña entzun be nirerik ez areik! ¡Nire itz ori zelan eldu arein belarrietara euran zarata guztien ganetik!

ALGORRI.

GETFO-NEGURI

IZPAR BALTZA

Barikuan il zan Ibaibarriaga' Jule neskatillia; atzo ixan zan illobiratzea, ta bere gogoaren aldeko elizkizuna. Atsekabean laguntzen dautsegu bere sendijari.

Goyan bego; irakurleari otoitz bana bere gogoaren alde.

NASKALDIJA

Areatza (Villaro'n) ango urak artuten aurkitzen dira gure adiskide maite "Erri" euskel-idazlea bere emazte Esturo' Inese, ta euren semetxuba. On egin d'aitzuela.

Atzo pozik agurtu genduban, Maruri' Erramun jauna Aba bururduña, ordu batzk geure artera igaroten etorta.

Aldi laburtxurako etorzan lez, ezin egon gintzazan beragaz, apurtxu baten baño, ba Gaminiz'era Andra Mari egunéko txonitza egiten etorri, ta larunbat goizean joan zan barriro Ondarribi'ra.

Berak emon euskun oraintsu atera daben idazti polita "Txomin Arlote" itz neurtuetan umetxuentzako, ta zarrentzako be gauza oso atsegingarrija euskera errazean edozeñek ulertuteko yasera. Eskarrik asko, Aba Erramun bezuza onegaitik ta irakurle euskaldunari erosi dayela idazti mamintsu au; bere saneurria laurleko bat da, ta salgei egongo da Bilbo'ko Verdes'en etxean, ta beste idaztitegi batzutan.

Aba Erramun'ek ainbat lan polit egiten dau geure izkuntza alde, ze aterata daukoz "Biotza abeslari", "Lili Txingar" itz neurtu politetan, ta orain bidian dauko beste bat "Txindor". Danok egingo bagendu Aba Erramune'k lez... Zorijonak jauna, ta alan jarraitu.

"TORMES'KO ITSU MUTILLA"

Irakurri dogu "Orixe"-ek oraintxu euskeralduko idazti mamintsu au be, ta euskera naiko errazean eginta dago. Zorijonak "Orixe", ta irakurlea kerosi idazti euskerazkoak, barriek egiteko gogoa sartu d'aiten idazlean artean.

"EUZKEREA"

Artu dogu ill oneri dagoiona ta polito dator. Oneik be lan ona egiten dagoz, ta geuk lagunduten badoutsegu ondiño geiago be egingo dabe. Emen be, idaztijak euskeraz ugari egiteko ustea dago, baña orretarako arpidetu gaitean idazti orreitara, euskaldunak euskeraz irakurriteko idazti ugarijak ta mamintsubak euki d'aiguzan.

ALANGOKO BAT.

IZURTZA

GURE GOTZAIÑA

Astelenian arratsaldeko seirak inguruan emen izan zan Goiko Jauregian Gazteiz'ko gure Gotzain (Obispo) agurgarriya eta gero juan zan Sukarrietara (Pedernales).

ESKERRIK ASKO

Pizkundiako mutillak bialduta edo artu dogu "Euzkerea" aldinkingia, eta Kirikiñori opaldua. Atsegintasun aundiyenagaz irakurri dogu zenbaki au ari alde batetik eta bestaldian amaitu arte.

Geuk be alan deritxagu "Mañarikok" lez gazterijarentzako onura andia ekarri izango leukela onelango Euskera gozuan zabalduko balira erriyetan irakurgai samurrak.

Eskarrik asko, eta egingotzu alegiña geuk be.

ZAURITU

Garzia Salas'en lantegian argintzan dabillela arri muturren bat jausita edo min artu eban Gerediaga Eustakik. Arin osatu.

TXIRRINGULARIYAK

Eguenian gotzeko zortzirak ingurutxuan igaro zirean erri onetatik txirringulariyok eta entzun gendun lenengo igaro zala Barruetabeña bizkaitarra erri onetatik.

ARRENTZAT URKIOLA'RA

Oitura dan lez Deun Erroka goixian juan zirean erri onetatik Deun Andoni gana arrentza edo errogatibia egiten.

NASKALDIJA

Astelenian juan zirean Sukarrieta (Pedernalesera) goiko zalduna d'an Ortiz de la Riva Joseba Miren bere emazteagaz.

Bermeo'tik etorri dira Gerediaga Imanol semia bere emazte Benerandegaz.

TXERRIAREN IL KANPAIA

Iñori odolkirik ez emateagaitik bere txerria gauaz iltzen zan bat bai omen zan Amezketa'n.

Pernandok jakin zuan ori, eta erne-erne egon zan txerria nail ilko ote zuten jakin arte.

Alako baten, goizeko ordu bietan ixil ixillik il zuten txerri ori, eta asi ziran erretzen...

Pernandok ori ikusi zuanian, joan zan arin asko sakristauaren etxera, ta errian sua zala ta su kanpaia joteko agindu zion.

Bai ala egin ere, kanpaia zalaparteka asi zan amezketar guziak esnatu ta kalera irten ziran, eta Pernando'ren atzetik au joan ziran txerria erretzen ari ziran tokira.

Iñork ikusterik nai ez, ta erri guziak ikusi.

ARTZAÑA.

MAÑARI

YUAN-ETORRI

—Urkiola'n iru-urren bat egiten egon dira Bustintza' Pauliñ abade yauna ta bere lloba Arteaga' Yosebe neskatillia.

—Otzandiyo'ra osteria eginda etorrala emen agurtau gendun, Eibar'ko argazkin (erretratista) ospatsua dan Oyanguren' Indaleki.

—Santurtze'ti ketorri ziran Bartzena' Agapito ta emaztia; baita Kapanaga' Bitor be.

—Elorrio'tik Oteiza' Masimiñe bere umetxuakaz eta Lete' Lone neskatillatxua.

—Bilbo'tik etorri ziran Garrido' Imanol, Barrenetxea' Ander eta Ipolito, au bere emaztiaz.

—Dima'tik Gorospe' Lander eta Toma anaiyak.

—Galdakao'tik Elberdin' Albereda ta emaztia.

—Abadiño'tik Lasuen' Balbiñ eta Lamikiz' Patxi.

—Lengo astian egon ziran emen Beitia' Mariñe ta Areitioartena' Susane.

ANDRA MARIYAK

Erri-onetako zaindari aundi ta kutuna dogun Jasokunde'ko Andra Mari yaiyak onan ospatu dira. Goizian zazpiretako mezan egon zan neskato-mutikuen yaunartzia; baita eurakaz batera Andra Mariya'ren opaz askok yaunartu eben.

Meza nagosiko itzaldiya ederto egiñ eban Durango'ko Etxaburu' Bitori yaunak. Arratsaldian Agurtza deuna abestuaz egin zan ibildeuna "prosesiñua" Andra Mariyaren irudi ederraz.

Erroka deunaren eguna be, beste urtietan lez ospatu zan. Amarretako mezan itzaldiya oso polito egiñ eban Sarrionandia' Kepa yaunak.

✤ ✤ ✤

Yai biyetan ezpatadantzari aldra ederra euki dogu; euren dantza eder eta politakaz berariz erriya alaitu eben; ba goiz-goizetik ikusten zan arpegi askotan poza ta alaitasuna batez be neskato-mutikuen artian.

Ikusliak poz-pozik agiri ziran eurei begira asetu ezinda, ta dantzariyok dantzan egiteko eben era ta egokitasuna asko atsegiñ izan zan.

¡Ederto, mutillak!

Baita egun bi orretan tanboliñ soñuan euzko-dantza garbiya egin zan illuntzirarte.

Durango ta inguruetatik "konbidau" jente asko etorri zan.

ARRENTZA

Bariku goizeko zazpi ta erdiyetan emendik igaro zan Urkiola'runtz Izurtza'ko errogatibie, euren txaunburu on Areitioartena Lon buru ebela. Lagun asko yuan zan.

TXIRRINDULARIYAK

Eguenian, goizeko zortziret inguruan emendik igaro ziran txirrindulari añeketariyak. Aldatza bera ¡a zan abiyadie! tximistia baño be ariñau yatsi ziran mutikuek eurei begira ondo pozik agiri ziran.

Emendik belen igaro zana Barruetabeña izan zan.

EZKONTZA

Andra Mari egunian yuan ziran lenengo aldiz ezkon-deiyak, Amantegi' Gixane (Encarnación) emengo neskatilliarenak eta Agirre' Patxiko Ubide'ko mutil gaztienak.

ERIOTZA

Geixorik amabost egun eginda eguenian il zan Diman Sarobe' Nikolase andrea, bere bizitzako ogetazortzi urtegaz. Ezagutzen d'ogunok oso tamal andiya artu dogu. Yaunak zeruan euki bei bere arimia.

Atsekabian laguntzen dautsagu bere sendi guztiyari.

EIZARIYAK

Egunokaz ainbat eizari ikusten da emengo basuetara doiazala; ta euren artian batzuk txori mordo ederrak ekarri be.

MAÑARIKO.

MUTRIKU

BERRIZ ERE...

Andoain'en dago aurten Euskel-eguna, ta... beti bezela emen d'atorkizue "Aberri" lepoan zakutxo bat duala, Mutriku'ren izena goigoian jartzeko asmuetan. Bai ba; orreiako jaiak ez dira bost errialekin egiten da.

Nere zakutxua Andonegi' Pirmin'en etxean gordetzen det orregatik iñork eman nai duanian Sekonde jaunari eman. Orain arte bildua.

Osoro' Gotzon, "Aberri", 5 lauerleko; Andonegi' Pirmin, 2; Andonegi' Iñaki, 1; Andonegi' Miren Itziar, 1; Andonegi' Julita, 1; Andonegi Nikaxi, 1; Egurbide Patxo, 2. Guztira, 15 lauerleko.

KIRIKIÑO SARIA

Arpide au gaurtik itxitzen degu. Dexente xamar portatu gera arpide ontan mutrikuarrok eta milla esker.

Aurrez, 90 lauerleko. "Itxas-aurre", 1. Guztira, 91.

ARRANTZALIAK

Asturias aldean aldi luzetxu bat igaro ondoren emen ditugu arrantzale mordoxko bat, kokota gorri gorri eginda; ezagun da bai, atuna ta Napar gorria ugari ibilli dana.

Irabaziak ere ondo xamar batzuk; eta beste batzuk exkax. Guk dakiguna da or Bilbo aldian dauden Mutrikuanak esango dutela ,ta Martin txikik zenbat?

Aurten piperra baño gorriago dago ¡jakiña ba! bera izan bada diru geien irabazi duana. Urte askuan, Martin.

NASKALDIA

Emen ikusi Etxeberria Eibar'ko botikariua bere sendiakin.

Bilbao'ratu da Abaitua Imanol Itxasi kapitxana.

AGUR SAMIÑA

Elortza Iñaki, Legazpiar abeslari ta abertzale jatorra ill dalą jakitiaz, oso samindu gaitu; aiñ ezaguna genuen, ta guk bezela Mutriku guziak; bada gure eleizan ainbat aldiz abestu zuan.

Gure samin agurra bere emazte ta umeai batez ere Linazasoro Karla "Altzeta"ri ta zuk irakurle Aita Gure bat bere gogoaren alde.

JAIAK

Auzo erri Deba ta Ondarrua'n dira egun onetan beren erriko jaiak ta mutrikuarrak or izan batzuk Deban eta beste asko Ondarrua'n. Gu Ondarruan izan giñan Antigua'ko Ama maitia'ri agur bat egitera juan da.

Agur itxasoko izar oiztialzallia
Agur pekatarien kaia ta estalpia

DEBA'N

Juan dan asteazkenian emengo abeslari txikiak Gastelurrutia apaiz jauna buru dutela oso txalotuak izan ziran Deba'n, batez ere "Txakolin" bada bi aldiz abestu erazi zioten. Ara abestiak:

1. "Txakolin".
2. "Matsaren orpotik".
3. "Ni naiz kapitan piloto".
4. "Goizian goizik".
5. "Illunabarra".

Zorionak, ta jo euskel abestioi. Ziruela edo Zirila, d'analako abesti nazkagarriak ankazpiratu arte. Amen.

EGIA OTE?

Saturrango apaizak eskatu ei diote, Etxeberri'tik Ikastetxera dagon bidea konpondu dezala, Udal edo Ayuntamentuari, baño nones", udalak; ori urtian bi milla peseta inguru emanda.

Baño, udaran etortzen dira "jente bien" ta beren automobil elegantiak traba gabe igaro ditezen, Kurutzondo'ko estu-unia udalak bere kontura zabaltzen ei du.

Ta "jente bien" oyeko zer uzten dute errian?

Udalak Marista edo eskola eder bat jartzeko ez dauka dirurik, baño kanpotik datozen automobil ederrak...

ABERRI.

ZEANURI

ANDRA MARI JAYAK

Andikiro ospatu dira erri onetan, elexkixun ospetsuak "Pontifical" lenengoa ta bigarrena abesturik, meza barria erri onetako seme Ibarra Juliok itzaldiak Aita Martin da Unzueta Fortunato jaunak, Elexa nagosia ederto atondúta, guztiz itzaltsu.

Udal gizonak da aldunak Arana ta Intxausti da Irigoyen jauna txistulariak da Yurreta'ko ta emengo ezpatadantzariak eta xaratu ziran lenengo egunian. Ondoren Urraburun zeyan pelota-toki' oneskundia; itzaldi sutsuak jayari yagokona parroko jaun. Arana diputaduak, Irigoyen'ek da Etxezarraga "Zidorra" irakurri ebazan olerki guztiz ederrak zeintzuk argitalduko diran; ondoren ezpatari aldra biek ederto txalotuak izan ziran, gauza guztiak ederto egi nziran erri onetako seme asko lekaide ta abar bertan ikusirik.

Oste andia izan zan albo erritatik be.

Jolasak oso politak. Gabeko zinea erriko gauzakaz da oso polito iñoz ez lez.

Arratsaldean 5 pelota partidua oste andia erdurik.

Kanales, bizkaiko txapeldun, da Zinkunegi, Uribe Ortuella'ko Moncalvillo, Arboleakoak, oso ederto yokatu eben, txalo itzalak irabazirik azkenengoak irabazi eben 22 ta 16 geraturik.

SAN ROQUE

Marino ta Mallabia txikerra Ubilla ta Monasterion aurka tanto bategaitik, azkenengoak irabazi eben laburra zan egin eben aldia 22 ta 21 geratu ziran danoetatik Ubillak gogorren yokatu eban.

Gaur larunbatez.—Arimen elezkixuna izango da elexa nagosian Unzueta jaunak itzaldi egiñik. Laburtxo idatzita dago yaien barri, baña urrengoan geyago.

Biyek Areatzako da erri onetakoak partidua.

BASERRITAR BAT.

CEMENTO PORTLAND
"ZIURRENA, S. A."
(EL MAS SEGURO)
Propiedad de la Sdad. marca "Cangrejo".
FUEROS, 2 :-: TELEFONO, 12.258